



INIGO AZKONA

**Iñaki Barcena**

Ekologistak Martxan-eko kidea ♦

## Petrolioia, ez dago gure esku!

EGUZKIPEAN. Ataunen, Gipuzkoako ertzeko herrian tokatu zitzaigun eskuak lotzea gure herriaren erabakitzeko eskubidea errebendikatzeko. Bizikletazale talde batean murgildurik jai giro ederrean ibili ginen, musika eta kantuen laguntzaz. Eguzkiaren izpiak eta beroa ez ziren arazo izan, jende andanaren mobilizazioak poza ekarri baitzigun ilaran egondako guztiei. Pozgarria da, Europako hauteskundeen osteko koiuntura politikoak eta Espainiako erregearen abdikazioak azken ukitua eman baitiote sistema politikoaren krisiari. Badirudi Espainiako trantsizioaren sindromea gaintzen ari garela eta bere partidu politiko nagusiak zein bere instituzio gorenak, monarkia kasu, eztabaidagarriak izateaz gain, kolokan jarri daitezkeela beldurrik gabe.

ENERGIA. Hauteskunde europarrerako kanpaina eskasean gutxi eztabaidatu da energiaz. Kanpaina hasi baino lehen jakin genuen Madrilgo Gobernu eta Nuclenor (Iberdrola + Endesa) Garoñako zentral nuklearra berrirekitzeko saioak egiten ari zirela. 15 urte gehiago (43 urte ditu zentralak) funtzionatu ahal izateko 100 milioi euro baino gehiago inbertitu beharko dituzte konpontze –eta segurtasun– lanetan. Arabako Partidu Popularrak ez du ontzat eman jokaldi berri hau eta EAJk aldiz haustura hidraulikoaren

(fracking) aurka dagoela baieztatu nahi izan du Europako hauteskundeen ostean. Nola ez. Energia politikaren bi gai hauek polemiko samarrak izan dira azken urteetan eta emaitza elektoralak oso adierazgarriak izan dira. Eta nire galdera da, energia nuklearrik gabe eta fracking bidezko gas metanorik gabe, nondik lortuko dugu energia?

HONDAR PETROLIODUNAK. Estreinakoz Europa osoan, Repsol-Petronor enpresak Muskizen duen findegira Kanadako hare bituminosoak heldu dira, hots, petrolio astuna eta kutsakorra Ipar Amerikatik erosi dute. Eta horrek adierazten du gure eredu energetikoaren norabide galdua. Muskizen dagoen findegia, askotan erraustegiekin gertatzen den moduan, materia behar dute martxan egoteko eta urrunetik ekarri behar bada, hori kutsakorragoa izateaz aparte, ez da ekonomikoa izaten.

Koke planta berriak petrolio “zikin” horiek fintzeko balio du baina etekin ekonomikoa ateratzeko ez dago hain argi. Petronor kolokan dago, oso. Horregatik, giro politiko berrian energia politikaren ildoak eta eztabidak sustatu beharra daukagu. Independentzia energetikoaren ziria bukatu da eta eguzkia dugu iraunkortasunerako bide bakarra. ■

*Nire galdera da, energia nuklearrik gabe eta frackingaren gas metanorik gabe, nondik lortuko dugu energia?*



DANI BLANCO



**Kattalin Miner**

♦  
KAZETARIA

## Memoriaren kapsulak

NOSTALGIATIK eraikitzen den herri bat, edo bizitza oso bat kasu, ez da eraikitzen den zerbait. Nostalgian bizi garenok, 80ko hamarkada bizi nahi izan genuen belaunaldi frustratuak ez du topatzen usu, gaurkoan egin nahi duena. Bihar ordea, nostalgiaz begiratuko dugu atzera.

Memoria kapsulak behar ditugu baina, igarotakoa, gogoratzeko baino, gogoratzen dugunaren ustea egikaritzeko. Armariak batzuetan, kaleen izenak, historia propioa dioten liburuak, argazki gogoangarriak, une historiko-epikoak. Giza kateak, bozak irabaztea, diskurtso hura, Erret Etxeari bizkarraren ematea, plazerez abortatzea.

Apeta nostalgikoekin eraikitzen dugu oraina agian, baina badakigu jakin, memoria kapsulak behar ditugula geroan gaurkoa nahi dugun bezala gogoratzeko. Solik “*Dakienak badaki/nora dijoan jakiteko/behar duela/nondik datorren jakin*”. Eta orain, basoak eraitsi dizkigute, sortu berri ditugun memoria kapsulak eraitsi nahi dizkigute, hala usteko baitute, behin gauden lekuan gaudela ahaztua izango dugula nondik gatozen.

Ez dakitena da, aspaldian ikasi genuela memoria gorpuzten. Eta hori ezin diotela eraitsi herri bati, bizitza oso bati, gorputz bati. ■

